

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA

1.- IKASTETXEAREN HELBURU OROKORRAK

- Hizkuntza konpetentziak indartu eta euskararen erabilera bultzatu gela barruan nahiz kanpoan. Euskaraz heziz eta etengabe eraginez euskararekiko motibazioan eta harekiko jarrera baikorrean.
- Ikasleak elebitasunean heziz, ingelera hizkuntzaren oinarritzko ezagutza eta erabilera ziurtatu.
- Eskola hizkuntza euskara izanik ezagutzen ez dutenekin laguntzako jarrerak bultzatu, komunikazioa erraztuz eta beste hizkuntzekiko errespetua azalduz.

1.1.- Hizkuntzen estatusa

Oro har esan daiteke gure komunitatean toki eta pisu desberdina hartzen duela eskolako hizkuntza nagusi bakoitzak.

Izan ere, eskolako eremuan (irakasle, ikasle eta irakasle ez diren langileen arteko hartu-emanetan) euskara lehenesten da eta horren irakaskuntza, ezagutza eta erabilpena bermatzen da.

Familien eta auzoaren kasuan, berriz, gaztelera nagusitzen da. Hori dela eta, hizkuntza horren ahozko ezagutza eta erabilera bermatuta dago eskolatik kanpo.

Era berean, nahiz eta egoera aldatuz joan (ikasle berrien artean gero eta familia euskaldun gehiago egon), eskola barruko harreman esparru askotan euskararen erabilerak zailtasunak ditu eta bere erabilpena ez da bermatzen: batzorde mistoak, besteak beste.

Aurrekoa kontuan hartuta...

Eskolak euskararen erabilera areagotzeko erronkari eutsi dio, benetako ikasle elebidunak ateratzeko asmoz. Horretarako ikastetxeak hizkuntzetako erabilpenaren protokoloa adostuko du aurten (12-13 ikasturtean), eta Hizkuntza Proiektu honen helburu nagusiak, edozein egoera dela eta, hartuko ditugu irizpidetzat.

Gelaz kanpoko bileretan ere ahalegina egingo da euskararen erabilera zabaltzeko. Hau dela eta,, estrategiak bilatu behar dira eta horretarako, familia euskaldunen partaidetza batzorde desberdinetan oso garrantzitsua da.

Beste aldetik, eskolan irakasle ez diren langileen inplikazioa ezinbestekoa da eta horretarako, jangela kudeatzen duen enpresaren konpromisoa erabat beharrezkoa da langile euskaldunak ziurtatzeko.

Era berean, jangelako langileen formakuntza eta eginkizunetarako, eskolak adostutako helburuak hartu behar dituzte irizpidetzat. Urteko Planean adierazten den helburuaren ezagutza, jarraipena eta ebaluazioaren dinamikan parte hartuko dute. Honela, helburuak bermatzeko aukerazabalduko da esparru desberdinetara.. Hori gauzatzeko prozedura Ikasturteko Planean zehaztuko da.

Aurretik aipatutakoa bideratzeko, eskolak dituen eztabaidaguneak erabiliko dira (adibidez):

- **Irakasleen batzordeak:** Agenda 21, Klaustroa, Batzorde Pedagogikoa, Ziklo Bilerak, Ikasle Delegatuak

- **Batzorde mistoak:** Festak eta Baliabideak, Geletako Guraso Delegatuak, Agenda 21, Behatokia, Batzorde Kudeatzailea, Ordezkaritza Organo Gorena (Batzorde desberdinak)

Aipatzekoa da eskolan Guraso Elkarteak antolatu eta dinamizatzen dituela eskolaz kanpoko ekintzak. Ekintza hauek, Urteko Planean jasotzen dira eta nahiz eta bakoitzak berezko helburuak izan, kontuan hartu behar da ekintza hauek eskolako dinamikaren jarraipena direla eta Hizkuntza Proiektuak zehazten dituen helburuak betearazi behar dituztela. Horregatik, ekintzak euskaraz bideratzen direla bermatu behar da eta, era berean, ikuspegi ludiko batez, ezagutza eta erabilpena ziurtatu beharko da. Honetarako, Ikasturteko Planean zehaztuko da prozedura.

Gure eskolak Ikas-komunitate proiektua bideratzen du eta Euskadiko Hezkuntza Sareko partaidea da.. Horrek bolondresen partaidetza eskatzen du eta partaide hauen errealitate linguistikoa oso desberdina izan daiteke. Beraz, egoera bakoitzean ekintza edo programaren helburuak sakonki aztertu behar dira ekintza hauek curriculumeko zein helburutan eragiten duten, nahiz eta kontuan izan Hizkuntzaren Helburuak. **[EDO Hizkuntza helburuak kontuan izateaz gain??]**

Labur bilduz, eskolaren paisai linguistikoa anitza dela eta, lehenasunezko irizpideak ezartzeko beharra ikusten da. Horretarako, Hizkuntz Proiektuan komunitate osoan adostutako helburuak ardatza izango dira eta urtero berrituko den Ikasturteko Planean zehaztu beharko dira ekintzak eta lortu nahi den maila.

Era berean, Proiektu honekin lotura duten ekintzak bideratzen dituzten beste Ikastetxeekin koordinazioa bermatuko da, ikastetxe horiekin eta gure Ikastetxearen egoera komunikatiboa eguneratzen joango gara. **Normalkuntzarako Batzordea** eratzea erabakitzen da .Era berean, batzorde honek Berritzeguneko bileretan parte hartuko du eskualdeko beste ikastetxeekin batera.

2.- ESPARRU INSTITUZIONALA ETA HIZKUNTZEN ERABILERA

2.-1.A- Ordezkaritza Organo Gorena

Lehen aipatu egin den bezala, gaur egungo OOGeko osaketa dela eta, familiak ordezkatzeko dituzten guraso euskaldunen kopuruak ez du bermatzen bilera euskara hutsez egitea eta bi hizkuntza ofizialeko erabilpena ez da eraginkorra ikusten.

Beraz, nahiz eta bilerak gazteleraz bideratu, bileretako aktak bi hizkuntza ofizialean egiteko proposamena luzatzen da. Era berean, guraso euskaldunen kopurua igotzen ari dela eta, batzorde desberdinetan hauen partaidetza bultzatzea oso beharrezkoa ikusten da gure komunitatearen funtzionamendua maila desberdinetan euskalduntzeko.

2.1.B- Guraso elkarteak

2010.eko urriaren 26an, Oxinbiribil IGE Elkarteak KALEAN BAI planeko hitzarmen orokorra sinatu zuen. Hitzarmen orokor honen bidez, guraso elkarteak gure egunerokotasunean euskara erabiltzeko lanean jardutera konprometitu zen. . Konpromisoen artean dauzkagu:

- Hizkuntza paisaia osoa elebiduna izatea: aurkezpen publikoak, eskutitzak, errotuluak...
- Haur eta gazteei eskainitako jardunetan euskaraz aritzea eta abar.

2.2.- Gurasoekiko harremanak

Gurasoekiko harremanetan hauen hizkuntza konpetentziak behatuz bideratuko dira, euskararen erabilpena lehenetsiz. Hau dela eta, ikasleen txostenak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira eta teknologiak aukera ematen badu, euskaraz idatzitakoa nabarmenduko da, lehenetsun maila adierazteko.

Matrikula garaian, "Ate irekiak" programa barruan bilera saioetan familia berriei euskaraz eta gazteleraz egiteko aukera emango zaie.

Kurtso hasierako bilerak, familien hizkuntza konpetentziak aztertuta, gazteleraz egin daitezke baina bilera bideratzean euskarri digitala erabiliko da, laburbilduz, bileraren garapena euskaraz azaltzeko. Honela, euskararen presentzia ziurtatuko da. Edozein familiak kurtso hasierako bilera euskaraz egiteko eskatuko balu aukera emango zaio eta gela edo maila horretako guraso euskaldun kopurua aztertuz beste bilera bat euskaraz egingo da. Aipatutako aukera, bilerak iragartzean, eskainiko da.

Bilera horietan, ikastetxetik kanpo eta etxean euskararen erabilera bultzatzeko aholkuak emango zaizkie familiei.

2.3.- Gainontzekoak

Ikastetxeko dokumentu orokor guztiak bi hizkuntzetan azalduko dira eta hizkuntzen kalitatea bermatu behar da.

Beste aldetik, bertako erakunde publikoekin harremanetarako dokumentuak (Ikastetxe artean, Berritzegunea, Udaletxea, Eusko Jaurlaritza,..) euskaraz izango dira. Erkidegotik kanpokoak balira, gaztelera erabiliko da.

Irakasleen dokumentuak euskara hutsean idatziko dira.

Familiekin egiten diren bileren aktak gazteleraz egingo dira, bilerak hala egiten badira.

Idatzien txukuntasuna neurri batean bermatzeko, zuzentzaile ortografikoa erabiliko da, beste tresnen artean

2.4.- Ikastetxeko baliabideak (material didaktikoak, liburu eta aldizkariak, multimedia, softwaeak,...)

Gure ikastetxea "D" ereduko eskola izanik, curriculumak adierazten duen ibilbidea jarraitu behar dugu. Hau da, ikasgai gehienak bideratzeko hizkuntza euskara dela eta, euskaraz argitaratutako materiala lehenetsiko da.

Horretarako, fitxategi bat sortzen eta berritzen ari da erabiltzen den materialekin eta gabeziaren bat nabarituko balitz Berritzegunetik aholkaturiko bideak aztertuko dira. Beste hizkuntzetan argitaratutako materiala interesgarria aurkituko balitz material honen erabilpenaren balorazioa egingo da eta irakasle taldeak egokitasuna baloratuko du.

Hezkuntzan erabiltzen den materialaren kalitatea oso inportantea da. Era berean, ikasleei eskaini behar zaienak zerikusi handia izan behar du haien kabuz (familia inguruan, ...) eskura dezaketenarekin. Ikas-Komunitate proiektuak irakaskuntza sistemak ikasleek dituzten gabeziei erantzuna eman behar diela baieztatzen du. Gure ikasleen kasuan, alde handia dago gizarteak eskaintzen diena eta hezkuntza sistemak eskatzen dienaren artean. Beraz, guk gabezi hauek bete behar ditugu eta eskolan sortzen diren egoera desberdinen aurrean era egokiz erantzun behar dugu. Horregatik, beti euskaraz egindako produkzioei lehenetsun emango zaie eta produkzio hauen ezagutza bultzatuko da. Hau dela eta, eguneroko ekintzetan eta ekitaldi berezietan, aipatutako irizpideak kontuan hartuko dira eta honela ez balitz, arrazoia argudioak azalduko dira.

Gaztelera material nahiko dago eskolan eta kalitatezkoa (liburutegia, testu liburuak,...)

2.5. Paisaia Linguistikoa.

Gure eskolako Paisaia Linguistikoa gure inguruko errealitatea islatzen du. Dunboa ikastetxea kokatzen den inguruak ez du egoera elebidun normalizaturik isladatzen, inguruan maila guztietan gaztelera nagusitzen da, horregatik gure betebeharra zera da, gizarteak betetzen ez dituen hutsuneak eskolak bete behar ditu.

2.5.1.-Hizkuntz idatzia

Ikasleei zuzendutako idatziak (oharrak, kartelak,...) euskara hutsean idatziko dira, ikasle orori euskararen ezagutza bermatzen zaielako. Hau dela eta, , eskolatik kanpo edo kanpoko eragileek bideratutako ekintzak euskaraz izango dira. Lehen aipatu den bezala, ikasleei zuzendutako ekintza edo materiala euskaraz bideratzeko zailtasunak izango balira, irakasle taldeak baloratu beharko du ekintza horren egokitasuna eskolako helburuekin.

Familiei zuzendutako idatziak bi hizkuntzetan izango dira. Beraz, irizpide hau edozein egoera aurrean bermatu beharko da, kanpoko eragileak barne. Beraz, kartela edo idatzia bi hizkuntzetan egiteko ezintasuna balego egokitasuna aztertu beharko da, beti hasieran azaldutako irizpidea lehenetsiz.

Gaur egungo errealitate linguistikoa kontuan hartuz (bi hizkuntz baino gehiago) eta era berean, ingelera hizkuntzaren erabilpena bultzatzeko asmoz, ikuspegi normalizatu ezartzeko asmoa dugu.

Eskola, arlo guztietan, kultura desberdineko hizpide izan behar da eta kultura guztiak bultzatzen ahaleginduko gara.

2.5.2.- Ahozko Hizkuntza

Goian aipatu diren irizpideak kontuan hartuz, maila guztietan lehen hitza euskaraz izango da, euskararen erabilpena bultzatzeko asmoz. Egoerak bideratuko du hizkuntzaren hautaketa baina beti ere, bizikidetzaren egokiaren lerro-buruak lehenetsiz.

2.5.3.-Hizkuntzen erabilera gelaz kanpoko esparruan.

2.5.3.1.- Jolastokia

Hizkuntzen erabilpenaren diagnostikoa osatzean zera behatu zen: esparru honetan nagusitzen den hizkuntza gaztelera dela. Kontuan hartzen bada ikasleen artean harreman zuzenak, bideratzeko gunea dela, atal honi bere berezko garrantzia eman behar zaio. Dena den, ikasleek irakasleekin eta eskolako gainontzeko langileekin (irakasleak, bolondresak, jantokiko langileak, praktiketako irakasleak,...) dituzten harremanak euskaraz bideratzeko beharra bermatu behar da.

Jolastokia hezteko gunea dela eta, gure Komunitateak ahalegin handiak egiten ditu gune honetan gure jokabideak, jolasak, jarrerak, ohiturak, emozioak, eskolako bizikidetzaren behatokiak zuzendutako irizpideen arabera bideratzeko.

Alde batetik, elkarren arteko komunikazioaren beharra berez sortzen da eta ezin zaio inolako trabarik jarri, baina beste aldetik, ezin da ahaztu, jolastokia

eskolaren beste gune hezitzailea dela eta irakasten ari diren hizkuntzak, erabiltzeko tresnak direla.

Beraz, ahaleginak egin beharko ditugu euskarak jolastokian lekua izan dezan eta horretarako, Urteko Planean erabakiko diren estrategiak landu beharko ditugu.

2.5.3.2.- Jangela / Ekintza Osagarriak

Atal honetan goian egindako hausnarketa berberak egin daitezke. Beraz, komunitateak jokatzeko irizpide berdinak izango dira. Honetarako, ezinbestekotzat jotzen da jangelako langileen formakuntza eta inplikazioa komunitateak adostutako helburuak lortzeko. Honetarako, jangelako arduraduna eta Zuzendaritza Taldeak kurtso hasieran jangelako funtzionamenduaren ildo nagusiak adostuko dituzte eta kurtsoan zehar jarraipena bideratzeko tresnak zehaztuko dira.

Beste aldetik, jangelako funtzionamendu egokia bermatzeko, ikasleek bi txandatan bazkaldu behar dute. Horregatik, txanda batekoek bazkaltzen duten bitartean, bestekoek atsedena egiten dute. Esparru hau arintzeko eta era berean, etekinak ateratzeko asmoz, Eskolako Guraso Elkarteak ekintza osagarriak antolatzen ditu eta Udaletxeak babesten duen Euskara Baietz programa barruan kudeatzen dira. Ekintza bakoitzaren helburuak proiektuari egokitzen zaizkio eta Urteko Planean txertatzen dira. Ekintza hauen bidez euskararen ikuspegi ludikoa erakutsi nahi diegu ikasleei eta curriculumekin zerikusirik ez dituzten aktibitateak eta ekintzak bideratzen dira, euskara elkarrekin komunikatzeko tresna izanik. Honetarako, ekintza hauetako hezitzaileei haiek dinamizatzen duten lanaren garrantziaren berri emango zaie, adostutako helburuak ezagutzeko. Era berean, lanaren jarraipena zehaztu beharko da.

2.5.3.3.- Garraioa

Eskolak eskaintzen duen zerbitzu hau nahiz eta eskola barruan lantzen diren hainbat arlotako (jarrera, ohitura, jokabide,...) ondorioa izan, ikasleretik eskolak duen eragina oso mugatua da. Hala ere, Delegaritzak kudeatzen duen zerbitzu honekin komunikazioa euskaraz izan dadin bermatu behar du. Horregatik, autobusetako begiraleek euskararen erabilpena ziurtatu beharko dute. Eta era berean, autobusetako begiraleei dinamizatzen duten lanaren garrantziaren berri emango zaie, adostutako helburuak ezagutzeko.

LABURBILDUZ

<u>Guneak / Espacios</u>	<u>Erabilpenaren irizpideak</u>
<p><u>Erabilpenako Hizkuntza</u> Eskolako Irakasle-Irakasleen esparruetan (jangela eta garraioa barne) Batzorde mistoetan Ordezkaritza Organo Gorena</p>	<p>Euskara Euskera / Gaztelera Gaztelera (*Bileretako aktak bietan)</p>
<p><u>Hizkuntz Idatzia</u> Ikasleei zuzendutako idatzi guztiak (oharrak, kartelak,...) Toki ofizialak (Autono erkidegoa) Familiei zuzendutako informazio guztia (*nahiz eta kanpoko eragileak)</p>	<p>Euskara Euskara Euskara-Gaztelera</p>
<p><u>Eskolako Baliabideak</u> Baliabide pedagogikoak (abestiak, pelikulak,...) Currículum-ean gaztelera arloari dagokiona</p>	<p>Euskara Gaztelera</p>
<p><u>Tecnología Berriak</u> Multimedia, sofwear,...</p>	<p>Euskara</p>
<p><u>Ekintza Osagarriak</u></p>	<p>Euskara</p>
<p><u>Eskolaz Kanpoko ekintzak</u></p>	<p>Euskara</p>
<p><u>Ekitaldi berezietan (jaiak,...)</u> - Musika - Kantak - Dinamizazioa - Zinema eskolan</p>	<p>Euskara (Informazioa boletinean azaldutakoa aprobetatzuz, esatariak euskara solik erabiliko du) Erabakitzen bada beste hizkuntzak erabiltzea irakasle taldeak erabakiko du.</p>
<p><u>Gurasoekiko bilerak</u> - Ateak Zabalik Ihardunaldiak - Gurasoekiko bilera - Bakarreko bilerak</p>	<p>2 saio Euskara eta Gaztelera Gaztelera –Euskarri euskaraz Norbaitek eskatuko balu, euskeraz (buletinean aukera hau azaldu) Familiek hautatuko dute</p>
<p><u>Jangela</u> - Hezitzaileak / Ikasleak - Ekintzak (Jokuak, ipuinak, kantak,...) -</p>	<p>Euskara</p>
<p><u>Garraioa</u> - Hezitzaileak / Ikasleak - Kantak, bideoa</p>	<p>Euskera* *Honetarako eskolak baliabideak bideratuko ditu.</p>